


Müsikaren Egüna 97



Prentsa ageria

Musikaren Eguna 97

Gunea : Urdiñarbe (Xiberoan).

Eguna : maiatzaren 18an (Pintekoste igante), 11 orenetarik xüxen, 23 orenetara.

Antolatzaile : Bil-Xokoa alkartea, Junuenia, 64130 Urdiñarbe.

Baldintzak : animazioeak dohainik.

Xehetarzünak : tel : 0559281410, 0559281757, 0559283133

fax : 0559282885

Oharra : Breizh Euskal-Herri harreman gaüaldi bat proposatürik da, maiatzaren 17an, 19ak 30tarik aitzina.

Sar hitza

Urdiñarbeko Bil-Xokoa alkarteak 8. Musikaren Eguna antolatzen dü, Pintakoste egünean, maiatzaren 18an, 11 orenetarik harat, bai eta eüskal-bretu gaüaldi bat, maiatzaren 17an, neskenegünean, 21 orenetarik aitzina.

Urte oroz bezala, bere bizi eta asmüaren proba erakasten deikü, edozoin publikorentako animazioeak proposatüz, izan dadin kältür sailean, güneko mozkinen ezagütaraztean, erakusketan, etab, Urdiñarbeko karrika xoragarrian.

97-ko Musikaren Egünaren lema ***Zeltik Soinüa*** da.

Ezi, Eüskaldün eta Okzitano kantarien ondoan, kausitüko dütügü zeltik herrialdetako ordezkariak : Irlanda, Eskozia, Britainia eta Asturiak.

Bestalde, 2 sormenen agerrarazteko parada dükegü : ikastola-berriaren aldeko K.Diskoa (KD) bai eta ere Ziunta jokoa, Xiberoaren ezagützeko.

Berrikuntzaz beterik datekean egünaldi bat, Xiberoa probintzian ederki üztartzen dütüana tradizioea -maskaradak (jarraikitzen düe) eta pastorala (ejerki aitzinatzen da Atarratzeko gaintian)- bai eta ikusgarri berriak.

1 - Musikaren Eguna : helbürüak

Ororentako den besta baten antolatzea (sartzea dohainik, haurrentako animazioeak, 3. adineko taldeer kümetüa),

Kältür animazioea eta ekonomia lotzea (laborantxako mozkinen sustatzea),

Beste nortarzün kältür elibati zabaltzea, tradizioea eta orainkotarzüna eskentüz,

Erakusketa güne baten proposatzea.

2 - Zeltik musikaren goratzea

Zeltik musika eta kulturak erakatsirik dirateke 4 utxuraren bidez, herrikoi kultura honen jakile diratekealarik, talde desbardinak.

2.1 - MPE (Irlanda) : folk eta "rock zeltika"

"More Power to your Elbow", beste behin Urdiñarbera ekar-araztez, Bil-Xokoak, publikoaren galtoari ihardesten dū, ikusiz beren igaran urteko Urdiñarbe eta Laasen (Biarnoan) ūken zūen arrakasta.

Bigarren KD batekin, Europa eta Estatū Batūetan ebili ondoan, talde profesional hau, oraiko Ipar-Irlandako hoberenatarik da. Badakie, 14 musika tresna erabiltez, sonū zinez garbi baten helkitzen.

6 motiko eta 2 neskatilaz osotūrik, ohizko bildūma ikertzen dūe folk edo "rock zeltika" egokitzeak eginez.

Gainera, taldeko Gerry Cunninghamen sormen zombait, baratzen dira MPE-ren bizi-bizi estiloan.

Azkenik, Niall, sonūegile eta irlandes dantza txapeldūna, zinez laket da bere herriko dantzen erakasten, Irlandako herrikoi bestak edo "pub" giroa orhitaraztez.

Zer agoinūa !

2.2 Mackenzie ahizpak : gaeliko kantorea

3 ahizpek osotūrik (Eilidh, Gillian, Fiona), talde honek gaeliko hizkuntzan, a capella, ahaide eta baladak emaiten dūtū.

Zinez ezagūtūrik bere herrian, haurtzaroaz geroz, kantatzen dūe, sari hanitx irabaziz, bakotxkako bizipideak hasi beno lehen, kantatzez Eskozia gaelikoa.

Hiru ahizpek ibilbide haūtūa dūe. Gaelik ikasketa diploma, bakotxkako 1. saria gero botz taldeetan parte hartzea, ūtzūliak European gainti, gaeliko kulturaren sūstatzea -kantorea erakasten dūe edo telebixtan emankizūn segūrtatzen...- haborokin, KD bat Eilidh eta Gillianentako.

Erran behar da, Mackenzie taldea arra jūntatū dela berriki, dagūn ekainan helkiko den KD-aren karietan.

Beren botzen garbitarzūnak, alkarrekin aritze lifentak, hūrrūn eramaiten gūtūe, zeltiko lanoetan barna...

Zeltiko kulturaren, hobeki erran, gaeliko kulturaren haūtuzko ordezkari sirasgarriak !

2.3 Beaj-Iskis eta Rennes-ko Zeltik Etxea (Bretainia) : fest-noz

Fest-noz, ohizko dantzaldi giroa ezagütaraziko deiküe. Badakigü, Bretainia osoan, berriz ezagützen düan arrakasta.

Hor düateke :

- müsika taldea

Beaj-Iskis, bost sonüegilez osotürük, Rennes esküaldean ebilten dena : gitarra, txülüla, zahamiola, eskü-sonü diatonikoa eta prefosta biniou-bonbarda (bretu müsika tresna tradizionalak)

- "kan an diskan" kantariak

Müsikarik batere gabe, kantari horiek, fest-noz gaüaldietan, jenteak harroarazten eta dantzan ari arazten dütüe, ritmoa emanez beren botz eta zankoez.

Urdiñarben, galo eta bretu hizkuntzetan ariko dira.

- dantzariak

Rennes-ko Zeltik Etxeko berrogei bat dantzariak publikoa trebatüko düe "gavotte", "plinn" eta "an dro"ko ürratser.

Ohitaraz dezagün, Breizh Euskal-Herri harreman gaüaldia, maiatzaren 17an, 19ak 30tarik harat, Bretainiako kantari eta dantzariekin, "Aintzindariak" alkarteko 7 taldekin, bai eta Xiberotar kantariekin izan dela.

Ez da egiazko ikusgarri bat bena bai 2 kältüren arteko trukatze bat, aihari batekin 19ak 30tan, pastetxeekin eta 21 orenetan animazionearekin.
Aiharian parte hartzeko, izena eman : 0559283133 zenbakian.

2.4 Manolo Quiros eta bere taldea (Asturias) : folk

Zeltik müsika alkarretaratze orotan bezala, beren Galiziako aüzoekin, Asturianoak ordezkatürük dirate : Manolo Quiros hor date bere taldearekin.

Asturiano gaitaren berezilari, (kornemusa ere joiten dü), 5 ofiziozko soinüegile lagüntürük date, Espaina osoan famatürük, folk estiloari esker.

Europako gaitaren historiaren bürüzko libürü idazle, Manolo, unibertsitate erakasle da eta dozena bat KD-tan agertü da hala nola Oviedoko orkestra sinfonikoarekin.

Ohizko sonü tresna hau sartü düelakotz oraiko müsikan, Manolo famatürük da bere herri osoan. Müsika memento haundi bat, zeltik arima hori bürüz joan nahi düenentako, Atlantika aldetik horra den hats hortarik, Irlandatik, Konpostela artino.

3 - Egün hortako aurkezpenak

3.1 Ziunta jokoa

97-ko urtarrilaz geroz, suskripzio bidez saltzen da jokü hau.

Uhaitza alkarteak kûmitatzen gütü publiko aurkezpenera.

Antzera joküaren egite badü, 620 galtoren bidez, Ziuntak, Xiberoa ezagütaraziko deikü, geografia, ekonomia, kûltüra, kirolako galtoer bidez.

Eroste interesgarri bat, egiazko kreative lan batentako.

3.2 Ikastola-berriaren aldeko süstengü KD

Badakigü, Xiberoan, ikastola berriaren eraikitzeak süstengü builta handia sor arazi düala (izan dadin sos aldetik edo eskü-kaldüz) eta bestalde, eüskararen begiratzeko, ikastolaren ezinbestekotarzüna, oroek onartü behar lükeela. Ezi, hizkuntzarik gabe, eüskararik gabe, zer lizate Xiberoko nortarzüna kûltüra ?

13 kantari edo taldek parte hartü düe KD hontan, dagün ekainan agertüko dena. Habia alkarteak kûmitatzen gütü aitzin agertze hortara. Mikel Markez, Guk, Amaia Zubiria, Maite Idirin, Pierpol Berzaitz eta Mari-Hélène Eztehandi, Mikel Errazkin (Sorotan-Bele ohia) eta Aixa bere talde berria hor agertüko dira.

3.3 Marilis Orionaa

97-ko ekitaldi hontako berrikuntza date, düdarik batere gabe, Marilis, Urdiñarbeko publikoarendako.

"ça-i ! "bere KDaren agertzearekin, arrakastarekin hasten dü bizipide bat Biarno, bere sort herritik kanpo.

Izigarriko botzarekin, bere ama hizkuntzan haütatü dü Biarnoaren kantatzea, herri kantore elibat bena oroz gain, bere idatz lanak.

Ezagützeko baitezpada !

Hona heben, prentsan agertü düen artikülü zonbait.

4 - Egitaraua



Maiatzaren 17an, neskenegüna, 21etan : Breizh Euskal-Herri gaüaldia

 Maitzaren 18an, igantea : Musikaren Eguna 97

11etan : **KANTALDI (lehen parte)**

13etan : **BAZKARIA**

Lekuko laborantxako mozkinenez eginik.

Izenak eman, maitzaren 15-eko, deitzez 0559283133 zenbakirat.

15ak 30etan : **ANIMAZIONE DESBERDIN**

- Erakusketa, margolan
- Herriko ostatuan : Xiberoko kantariak
- Haurrentzat, animazione : Haurra alkattea,
- Ikastola berriaren aldeko KDaren aurkezpena
- Egün orotan : gaitero, txanbelari, txülulari, trikitilari (Euskal-Herriatik) eta Galizia, Britainia, Asturietako soinuëgileak.
- Haur maskarotze

Hor izanen dira :

- **IRLANDA :**

MPE

- **ESKOZIA :**

MACKENZIE ahizpak

- **ASTURIAK :**

Manolo QUIROS eta bere taldea

- **BRETAGINIA :**

BEAJ - ISKIS taldea eta Rennes-eko Zeltik Etxea (40 dantzari)

- **OKZITANIA :**

Marilis ORIONAA

- **EUSKAL HERRIA :**

GUK,

Mikel MARKEZ,

Mikel ERRAZKIN eta AIXA taldea,

Amaia ZUBIRIA,

Pierre-Paul BERZAITZ et Marie-Hélène ESTECAHANDY,

Maité IDIRIN,

22etan : **AIHARIA**

23etan : **KANTALDI (urrentze)**

- **Sartzea dohainik -**
- **Aterbea segürtatürük -**

Urrantze hitza

Urdirarbe bezalako herri batean, holako ekitaldi baten antolatzeak sortzen dütuan egiatzko nekezien gatik, argi da bil-Xokoak bere jokua irabazi düala. Kausitü dü, besta berezi baten antolatzea, artista eta publikoaren arteko harreman güne bat sortzez.

Komerzial bidetarik kanpo, goxotartzüna da nausi heben, nortartzün kültüren ezagütarazteko (eüskaldün, Bretu, Gaeliko...), ohizko eta oraiko espresabideak botitzen direlarik.

Eskerrak :

Artista eta sonüegile oroer, dohainik horra beitera

Bere sos lagüngoarentako :

- P.A-ko Kontseilü Orokorra
- Akitaniako Eskualdeko Kontseilua

Antolatze mailako beren lagüngoarentako :

- Uhaitza alkartea, Mendikota,
- Haurra alkartea, Maule,
- Habia alkartea, Maule,
- Uztaro alkartea, Mendikota,
- Idoki alkartea, Donapaleu,
- Ikerzaleak alkartea, Maule,

Bere lagüntzarentako :

- Herriko ofizialeak : J. Barreix, J.J Etcheberry, J.M. Bouillon, Chimix anaiak, A. Queheillalt
- Xiberoko lantegiak : EBL (Maule), EMAC (Omize Pia), OROC- BAT (Bildoze)